



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urtarrilaren 29a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A :

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Kulturaren Plan Estrategikoaren tarteko ebaluazioaren inguruan garatu beharreko politikari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako kirol-azpiegituren gaineko industriaren inguruko politika orokorrari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, Nafarroan eten digitala desagerrarazteko politikei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, unibertsitate-beken politika orokorrari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (NEKP) gaineko kontrol-politikari buruzkoa eta haren funtzionamenduari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, enpresei I+G+Brako dirulaguntzak emateko politikari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez premiatzen da prostituzio-sistema abolitu dadin. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da elektrizitate-merkatua sakon eraberritu dezan, prezio izugarri altuko egoerak saihesteko. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Osasunaren Lurralde arteko Batzordean onetsi dezan Lyme gaixotasuna nahitaez aitortzeko gaixotasuna dela. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-sistema sinergiko eta koordinatu bat ezarri dezan Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Lurralde Antolamenduko, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren artean, garapen-proiektu integralak bultzatzeko, ondare historiko-kulturala mantentzeko laguntza lurralde-garapeneko beste proiektu batzuekin bateratuz. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdearen bilera ezohiko eta urgenterako deia eska dezan, mugak ixtearen gaia aztertzeko. Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztu du (13. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitu errefuxiatu palestinarrek bizi duten egoerarekiko eta nabarmentzen baitu UNRWA Agentziak egiten duen lan garrantzitsua. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

—Adierazpen instituzionala, Minbiziaren Nazioarteko Eguna ospatzearen kariatara. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, CARUEn (Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzia) Nafarroak duen jarduerari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (15. or.).

—Galdera, erabakitzeko eskubideari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (16. or.).

—Galdera, Brexitak Erasmus programan dauzkan ondorioei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (16. or.).

—Galdera, Bertizko Parke Naturaleko basoko pistei eta bideei buruzkoa. José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (17. or.).

—Galdera, Donejakue Bidea dela-eta 2020ko ekitaldian Nafarroan eginiko jarduketei eta inbertsioei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (17. or.).

—Galdera, 2020ko ekitaldian Donejakue Bidea dela eta, Orreagatik Iruñera doan tartean, eginiko jarduketa eta inbertsioei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (18. or.).

—Galdera, Donejakue bidea dela eta, Pirinioen garapena bultzatzeko 2021eko ekitaldirako aurreikusi diren jarduketei eta inbertsioei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (19. or.).

—Galdera, 2020ko ekitaldian Donejakue Bidea dela eta, Estellerrian eginiko jarduketei eta inbertsioei buruzkoa eta 2021erako Estellerria garatzeko aurreikuisitakoei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (19. or.).

—Galdera, Pirinioetako udalerrietan zuntz optikoa jartzeari buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (20. or.).

—Galdera, Estellerriko udalerrietan zuntz optikoa jartzeari buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (21. or.).

—Galdera, Erronkarin eta Zaraitzun eginiko inbertsioei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (21. or.).

—Galdera, 2021eko Donejakue Urtearen zabalkunderako jarduketei buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (22. or.).

—Galdera, “Justizia hobetzea eta herritarrarengana hurbiltzea” proiektuaren exekuzioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (22. or.).

—Galdera, “Justiziaren arloko lankidetzeta eta koordinazioa hobetzea” proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (23. or.).

—Galdera, “Giza baliabideen kudeaketa hobetzea Justiziaren arloko langileen arloan” proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (23. or.).

—Galdera, Zaraitzun, Irabiako Urtegiko ibilbide zirkularra ixteari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (24. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskararen Bulegoko presidentearen arteko euskararen sustapenerako lankidetzeta-hitzarmenari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (25. or.).

—Galdera, Refenaren instalazioak erabiltzeagatik ordaindu ez izanari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (25. or.).

—Galdera, Nafarroako Filmotekaren jarduerari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (26. or.).

—Galdera, “Filomena” denboraleak Nafarroan izan dituen ondorioei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (27. or.).

—Galdera, sektore publikoak finantza-erakundeei komisioak ordaintzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (27. or.).

—Galdera, memoria historikoa dela-eta, Ibero elizako ataritik plaka bat kentzeari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (28. or.).

—Galdera, etxeetan artatutako mendeko pertsonak jasotzen dituzten laguntzei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (28. or.).

—Galdera, Punto Futuro Arrisku Kapitaleko Funtseko partaidetzari eta likidazioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (29. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Kulturaren Plan Estrategikoaren tarteko ebaluazioaren inguruan garatu beharreko politikari buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko interpelazioa, Kulturaren Plan Estrategikoaren tarteko ebaluazioaren inguruan garatu beharreko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2017ko abenduan aurkeztu zen Nafarroako Kulturaren I. Plan Estrategikoa, zeinak balioan jarri ziren baitzituen kultura-sektoreak, eta halaber Nafarroako kultura-politika berri baten oinarriak sendotzeko apustua egiten baitzuen, 2017-2023 aldirako.

Plana Kultura Zuzendaritza Nagusiak sustatu zuen, Nafarroako Kultura Kontseiluarekin lankidetzan, eta hura taxutzeko aintzat hartu ziren parte hartzeko prozesu zabal baten barruan gauzatu-

ko dinamika sektorialen eta lurralde-mailakoen bidez jasotako ekarpenak, hausnarketak eta irizkiak.

– Planak bost helburu nagusi izan zituen:

– Nafarroako kultura-sektoreen beharrak hautematea,

– Epe ertain eta luzerako ardatz estrategikoak, jarduera-ildoak eta ekintzak finkatzea.

– Aukera berriak bultzatzea kultura- eta sormen-sektoreentzat, tradizioa eta garaikidetasuna integratzea, hiri- eta landa-mundua, prozesu parte-hartzaileen jarraitutasuna bermatzea haien garapenean.

– Plan estrategikoa 10 ardatz estrategikoren, 41 jarduera-ildoren eta 118 ekintzaren inguruan egituratu zen. Planak adierazten du haren garapen progresiboaren jarraipena eta ebaluazioa egin beharko dela.

Lehen agerraldian, 2019ko irailaren 25ean, kontseilariak iragarri zuen Plan Estrategikoaren “ebaluazio zorrotza eginen zela, haren indarraldia eta gaurkotasuna objektibatzen eta neurtzeko”.

Gure ustez, pandemiak ezarpena moteldu du, eta birdefinitu egin behar da.

Horren haritik, Kultura eta Kiroleko kontseilariari honako gai hauei buruzko galderak egingen dizkiogu:

Kulturaren Plan Estrategikoaren tarteko ebaluazioaren inguruan garatu beharreko politika.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Interpelazioa, Nafarroako kirol-azpiegituren gaineko industriren inguruko politika orokorrari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako kirol-azpiegituren gaineko industriren inguruko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, interpelazioa aurkeztu du Nafarroako kirol-azpiegituren gaineko industriren inguruko politika orokorrari buruz.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Interpelazioa, Nafarroan eten digitala desagerrarazteko politikei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroan eten digitala desagerrarazteko politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuari egindako interpelazioa, Nafarroan eten digitala desagerrarazteko politikei buruzkoa.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Interpelazioa, unibertsitate-beken politika orokorrari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko interpelazioa, unibertsitate-beken politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuari egindako interpelazioa, Unibertsitate-beken politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Interpelazioa, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (NEKP) gaineko kontrol-politikari buruzkoa eta haren funtzionamenduari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (NEKP) gaineko kontrol-politikari buruzkoa eta haren funtzionamenduari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuari egindako interpelazioa, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (NEKP) gaineko kontrol-politikari buruzkoa eta haren funtzionamenduari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Interpelazioa, enpresei I+G+Brako dirulaguntzak emateko politikari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko interpelazioa, enpresei I+G+Brako dirulaguntzak emateko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuari egindako interpelazioa, Enpresei I+G+Brako dirulaguntzak emateko politikari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Mozioa. Horren bidez premiatzen da prostituzio-sistema abolitu dadin.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez premiatzen baita prostituzio-sistema abolitu dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapideztea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzorritz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du,

Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Haren bidez premiatzen da prostituzio-sistema abolitu dadin.

Gure gizartean desberdintasuna eta pobrezia feminizatuta egotearen muturreko adierazpena da emakumeen eta neskatoen prostituzioa. "Sexuaren industria" deitutakoa, prostituzioa, sexu-esplotaziorako emakumeen salerosketa eta pornografia barne hartzen dituena, munduko negozio ikaragarrienetako eta kriminalenetako bat da, handiena ez bada. Nazio Batuen eta Europar Batasunaren datuen arabera, emakumeak eta neskatoak mundu osoan hautemandako sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimen % 71 dira, eta Europa Mendebaldean identifikatutakoen % 80; horien % 95 prostituzioan bukatzen dute. Sexu-esplotazioa da esplotazio-modu ohikoena (% 59); ondotik, bortxazko lana (% 34) dator.

Bat gatoz Nazio Batuek egindako deiarekin, COVID-19ari emandako erantzunak eta haren ondorengo mundu-mailako suspertzeak lehentasunezko lekua eman diezaien duintasunari eta giza eskubideei. Ahalegin handiagoa egin behar dugu biktimak prostituzio-sistematik babesteko

eta pertsona kalteberenak, tartean emakumeak eta neskatok, esplotatzea saihesteko.

Nafarroako Parlamentuan onartzen dugu gure eskumenen esparruan lanean jarraitu behar dugula sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeei eta neska-mutikoei baliabideak eta bermeak emateko.

Halaber aitortu nahi dugu krisi honetan ezinbesteko zerbitzuak ematen jarraitzen duten organizazioen eta kolektiboen lana: biktimak bilatzen eta justizia, osasungintza nahiz laguntza eta babes soziala izan dezaten laguntzen, eta abusu nahiz esplotazio egintza gehiago gerta dadin ekiditen.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen ezinezkoa izaten jarraituko du emakumeak eta neska-mutikoak erosi, saldu eta esplotatzen diren bitartean, prostituzio-sistemaren esparruan. Beste herrialde batzuetako azterlanek eta esperientziek adierazten digute prostituzioa erregularizatu den lekuetan salerosketa areagotu egin dela. Beraz, gure ustez, prostituzioa abolitu egin behar da emakumeen eta haurren sexu-esplotaziorako salerosketari eraginkortasunez aurre egiteko.

Prostituzioa abolitu eta gizakien sexu-esplotaziorako salerosketa desagerrarazi beharra dago, bai eta emakumeen eta neska-mutikoen duintasuna defendatu eta emakumeak eta haurrak esplotatuz aberasten diren sareak eta mafiak amaiaz ere. Biktimak babestu eta lagundu behar ditugu, jatorrizko herrialdeekin lankidetzan aritu, eta herriarrak kontzientziatu prostituzioa esklabotzako eta indarkeria matxistako modu modernoak izateari buruz.

Prostituzioa eta sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa pobrezia feminizazioaren aurpegi ankerrenetako bat dira, baita pandemiaren ondorioz sufrimendua eta kalteberatasuna areagotu zaien emakumeen aurkako indarkeria-modu okerrenetako bat ere.

Nafarroa komunitate aitzindarietako bat da arlo honetan, zeren eta prostituzioa indarkeria matxisten adierazpentzat jotzen baitu Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legean. Horrela, biktimei arretoa osoa ematearen aldeko apustua egiten da, eta haien askatasuna eta autonomia berreskuratzeko beharrezkoak diren baliabideak bermatzeko lan egiten da. Gai-

nera, bidea egiten da emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen horren aurkako prebentzioan eta sentsibilizazioan aurrera egiteko.

Hala ere, estatu mailako lege abolizionista baten aldeko apustua egin behar dugu, modu integralean jorratuko duena irabaziak emakumeen aurkako indarkeriaren kontura bilatzen dituen negozio hori, fokua putazaleengan jarriko duena eta, gainera, zehatu eta zigortuko dituen emakumeak gizonen kontsumorako salgai bihurtzen dituen egoera bat hutsaltzen edo baliatzen dutenak.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du indartu ditzan, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen eta foru-plan berriaren esparruan, prostituzio-sistematik bizirik ateratzen direnei arretoa integrala emateko diziplina anitzeko zerbitzuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kanpainak egin ditzan emakumeen erosketaren, prostituzioaren kontsumoaren eta emakumeen irudi iraingarriaren aurkako kontzientzia soziala sortzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez bultzatzea dezan izaera abolizionistako udal-ordenantzen onespena, kasuko udalerrietan sexu-erosketa salatu eta zigortu dadin.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu, bai eta toki entitateak ere, indartu egin ditzaten gizakien sexu-esplotaziorako salerosketa-delituak detektatzeko eta kontrolatzeko baliabideak eta ekintzak; izan ere, adierazle nahiz azterlan guztiek erakusten dute pandemiak areagotu egin duela gizakien salerosketa, bereziki emakume eta neskatokena, zeinak, konfinatuta egotean, indarkeria handiagoaren arriskuarekin egon baitira.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du onetsi dezan gizakien sexu-esplotaziorako salerosketaren eta prostituzioaren aurkako lege integral bat.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 15ean

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da elektrizitate-merkatua sakon eraberritu dezan, prezio izugarri altuko egoerak saihesteko.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita elektrizitate-merkatua sakon eraberritu dezan, prezio izugarri altuko egoerak saihesteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Urtarrilaren 7an elektrizitatearen merkatuak 88,93 €/ MWh-ko batez besteko prezioa ezarri zuen, eta gehieneko prezioa 108,97 €/ MWh izan zen, 20:00etan. Urteak ziren halako kopururik erregistratzen ez zela. Hala ere, hori larria izanik ere, penintsulan aurrekaririk gabeko hotz-bolada batekin batera gertatu baitzen, egoerak okerrera egin zuen.

Nahiz eta prezio oso altua izan, ez zen izan historiako ordu-preziorik altuena, baina bai azken hamarkadakoa. Bada, hurrengo goizean merkatu elektrikoak, hurrengo egunerako egin zuen enkan-tean, 121,24 €/ MWh gorenera iritsi zen 21:00etan. Hau da, hilaren 9an, larunbata, familiak beren etxean elurte eta euri-jasen erdian zeudela, 21:00etan berotzen saiatzen eta afaria prestatzen ari zirela, MWh-ko 121 euroko prezio izugarria ordaindu zuten.

Egoera hori jasanezina da, eta oligopolio elektrikoaren interesei eta merkatuaren diseinu ez-efi-

zienteei erantzuten die. Egia da hotzak elektrizitate-eskaria handitzen duela, egun horietan meteorologia ez zela oso egokia izan energia berriztagarria sortzeko (prezioa jaisten duena izan ohi da), CO₂-a garesti dagoela eta gasaren merkatua izugarri igotzen ari dela kanpoko inguruabarren-gatik, baina horrek ez du justifikatzen errekorreko muga horietara iristea.

Behin eta berriz agerian jartzen ari dena da merkatu elektrikoaren egungo konfigurazioak eta haren gehiegizko kontzentrazioak ez-efiziente bilakatu dutela merkatu hori. Hori dela eta, urteak daramatzagu funtzionamendu-sistema hori salatzan. Etengabeko salaketa-lan horri esker, Unidas Podemos eta PSOEren arteko Gobernu Akordioan egungo elektrizitate-merkatua erreformatzeko konpromisoa lortu zen.

Zehazki, 3.2 puntuan islatu zen, eta gure indar politikoak uste du iritsi dela garaia PSOEek bere konpromisoak bete ditzan, eta lan-mahai bat egonen da merkatu elektrikoaren eredu berriaren diseinuari ekiteko distortsio horiek saihesteko; izan ere, distortsio horiek elektrizitatea ekoizten duten enpresentzat eta nagusiki kontrolatzen duen oligopolioarentzat baino ez dira onuragarriak, eta argi eta garbi dago kontsumitzaile ahulena kaltetzen dituztela bereziki.

11 milioi etxeko kontsumitzaile inguru daude PVPCaren arabera "tarifa arautuari" atxikita, eta gizarte-bonua eskatzeko, kalteberatasun-egoera egiaztatzeaz gain, tarifa horri atxikita egon behar da. Tarifa hori, funtsean, elektrizitate-merkatuaren bilakaeraren indexazioan datza, hau da, merkatuaren hegazkortasunaren mende dago, eta prezio-arriskua ez dute beren gain hartzen konpainia merkatutzatzaileek, kontsumitzaileek baizik.

Eta hori horrela da, besteak beste, lehen aipatu dugun diseinu ez-efizienteagatik, José María Aznar jaunaren Gobernuak sortutako eredu hartan elektrizitatearen azken prezioek ez dutelako zerikusirik energia sortzearen kostuekin. Elektrizitatearen prezioa egunez egun aldatzen da, zeren eta oszilazioak azken kontsumitzaileari helarazten dizkion ordutegi-sistema baten bidez zehazten baita. Oszilazio horiek munduko eskaintza- eta eskaera-dinamiken ondorio dira; beraz, Asiako gas-hornidurarekin lotutako arazo batek eragina izan dezake gure fakturan.

“Marjinalista” deitzen duten sistema horrek energiek “zerutik eroritako onurak” (windfall profits) izatea dakar, eskainitako energia guztia “zororen” (pool) prezio garestienean kobratzen dutelako. Hiru produktu garestienaren prezioan saltzearen antzeko zerbait da. Analogia batekin ikusten dugu:

Imajina dezagun produktu bera saldu nahi dugula: gari-kilo bat. Garia ekoizteko lurra, eskulana, ongarririk eta makinak behar ditugu, zeinak desberdinak baitira toki batetik bestera eta ekoiztearen kostua ere aldatzen baitute.

Demagun kilo bat 10 euroren truke ekoizten dugula zelai oso emankor batean; beste kilo batek beste toki batean beste 20 euroko kostua duela, eta beste kilo batek beste 100 euroko kostua duela. Sistemak berekin dakar horietako bakoitza 100 eurotan (garestiena) salduko dugula: 300 euro ordainduko genituzke 3 kg gariren truke, haien baterako kostua 130 eurokoa denean.

Orain, pentsa dezagun Japonian ongarririk asko eskatzen dituztela. Eskaria igotzean, prezioa ere igo egiten da. Garirik garestienaren prezioa, ongarririk gehien erabiltzen duenarena, igo egin da, adibidez, 500 eurora. Zer gertatuko litzateke aztertzen ari garen sistema horren azpian?

Kontua da prezio-igoera horrek eragina izanen duela munduko gari-merkatu osoan; izan ere, orain garia guztia 500 eurora salduko da, baita 10 euro balio duena ere. Horrela, gari-ekoizle lehiakorrenentzat izanen da onuragarria, baita ongarririk erabiltzen ez dutenentzat ere.

Analogia horrek balio digu, “produktu” energetikoen (hidraulikoa, nuklearra, ikatza, etab.) prezioen amaierarekin gertatzen denaren bertsio sinplifikatua delako. Gobernuak 10 euroko prezioan garia gehiago sortzea sustatzen duten erreformak bilatu behar ditu, analogiarekin jarraituz. 100 euroko edo 500 euroko garia inoiz erabili beharrik ez izateko joera izan behar da, 10 euroko garia nahikoa delako. Hau da, kontsumitzailearentzako energia merkeagoa.

Espanian, energia-sektorea hiru enpresa handik menderatzen dute, eta enpresa horiek merkatu-botere handia dute. Enpresa horien osaera sozial orokorra ere problematikoa da: interregatzen urteek beren botereari izena jarri diote. Azken urteotan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) zaintza-lanak ekarri du hainbat milioikako isunak jartzea Espainiako enpresa handiei, merkatua manipulatzegatik, hau da, elektrizitatearen prezioa legez kanpo garestitzegatik. Beste irregulartasunik egon ez dela ziurtatzeko, Kontsumo Ministerioak MLBNri eskatu

dio azken egunotako merkatuaren portaerari buruzko informazioa emateko.

Argiaren prezioaren igoerak okerragotu egiten du familia ahulenen energia-pobreziaren egoera, eta, beraz, arazo sozial larri baten aurrean gaude, eta Gobernuarentzat lehentasuna izan behar du arazo horren konponbideak.

Gobernuak oinordetzan hartutako energia-merkatua gaizki diseinatuta eta pentsatuta zegoen erregai fosilen arorako. Horregatik, trantsizio energetiko justurako erreforma ugari egin diren arren, bide luzea dago egiteko. Aurre egin behar zaion egiturazko arazo bat badago.

Askok enpresa publiko bat sortzearen alde egiten dugu, eta panazea ez izan arren, ekintza publikorako marjina hobetuko litzateke eta merkatuaren egitura aldatzea lortuko litzateke. Era berean, prezioak jaisten lagunduko lukeen tresna erabilgarria da. Horregatik defendatzen dugu askok haien existentzia. Hala ere, azken bi urteetan, handizkako merkatuan energiaren merkatuko prezioa % 40ra jaitea lortu dute erreformek. Koalizio-akordioak lan-ildo eta -neurri batzuk ezartzen ditu arazo hori behingoz konpontzeko.

Gainera, koalizio-gobernuak merkatu energetikoen erreformak garatzen jarraitu behar du, anomaliak zuzentzeko. Horien artean daude energia-enpresen fiskalitatea eta energia-sistema bidezkoagoa eta kalteberak babesteko dituen lortzeko modu berriak, bai eta energia berriztagarrien aldeko apustua ere.

Azken batean, koalizio-gobernuak eraberritzean jardun behar du, elektrizitatearen prezioa jaisteko eta duela hamarkada batzuetatik datozen eta egungo ekoizpen- eta kontsumo-ereduak eragindako krisi ekologikoak areagotzen dituen egitura-arazoak zuzentzeko.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Gobernu Akordioaren 3.2 puntua bete dezan eta elektrizitate-merkatua sakon eraberritu dezan, prezio izugarri altuko egoerak, oraingoaren modukoak, saihesteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komun 2019/944 Zuzentarauan ezarritakoari jarraituz Trantsizio Ekologikorako Ministerioak prezioak aldi baterako finka ditzan, gutxienez ere alarma egoera amaitu arte, aipatu zuzentarauaren 5. artikulua aurreikusten dituen salbuespenen arabera.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du egungo tarifa arautua (PVPC) ordeztzeko benetako tarifa arautu bat, gaur egungoa ez bezalakoa, arautu gabe eta merkatu-irizpideen mendean baitago.

4. Nafarroako Parlamentuak Osoko Bilkura honen babesa erakusten du, eta Espainiako Gobernuak premiatzen du Endesa edo Repsol bezalako enpresen pribatizazioa lehengora dezan, % 100 kapital publikoa duen eta kudeaketa publikoa den enpresa bat sortzeko, energia berriztagarriak eta beharrezko trantsizio energetikoa irmotasunez bultzatuko dituen.

5. Nafarroako Parlamentuak Gobernuak premiatzen du uztailearen 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Uren Legearen Testu Bateginaren artikuluetan edo lege baliokidetan aldaketa bat egin dezan, funtsezko ardatz hauek jasotzeko:

– Aprobetxamendu hidroelektriko guztiak berreskuratzea, Estatuaren politika gisa, sektore publikoak interes komunaren aldeko baldintzetan kudeatu ahal izateko.

– Jauzi hidroelektrikoak itzultzeko espedienteak bizkortzea eta atzerapenik gabe eta iraungipenik gabe izapidetzea.

– Espedientea administrazio hidrauliko eskuduan izapidetzea.

– Espedienteak ofizios hastea organo eskudunaren erabakiaren bidez, dela organoaren beraren ekimenez, dela goiko agintarien agindu baten ondorioz, beste organo batzuen arrazoibidezko eskaeraren ondorioz edo salaketa baten ondorioz.

– Zentral hidroelektrikoa eta ustiapen hidroelektrikoko sistema osatzen duten gainerako azpiegiturak kokatuta dauden lurralde-eremuko autonomia-erkidegoak eta udalerriak edo udalerriek txostena egiten dute iraungitze-espedienteari buruz.

– Administrazio hidraulikoak, aprobetxamendu hidroelektrikoaren jarraitutasuna posible eta komenigarria dela eta plan hidrológicoarekin bateragarria dela uste duenean, jauzi hidroelektrikoa-

ren instalazioak lehengoratzea erabakiko du, haiek ustiatze aldera.

– Jauzi hidroelektrikoak lehengoratu ondoren, eta sektoreko enpresek kudeaketa teknikoak gartzan jarraitzea alde batera utzi gabe, horien onurak titulartasun publikokoak izatera igaroko dira, lurraldea egituratzeko irizpideekin. Jauzi hidroelektrikoen onurak erabiliko dira instalazio hidroelektrikoek eragindako lurraldeak ekonomikoki eta sozialki leheneratzeko, bai eta onura publikoko edo gizarte-intereseko beste helburu orokor batzuetarako edo belaunaldi berriko eraikuntza berriztagarrietan zuzeneko inbertsio publikoa egiteko ere. Aldez aurretik, kontsulta publikoko prozesu bat eginen da ukitutako udalerrian edo udalerrietan, herritarrek parte har dezaten emakida itzultzetik eta, beraz, sorkuntza hidroelektriko publikotik lortutako onurari esker eginen diren proiektuak ezartzean edo aukeratzean.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak eta horretarako gaitasun nahikoa duten Nafarroako udalak premiatzen ditu has ditzaten foru- eta toki-merkaturatzaileak eratzeari buruzko balorazio ekonomiko-teknikoa egiteko azterlanak, herritarrei elektrizitate-konpainia publiko baten bidez hornidura elektriko eskuratzeko aukera emanen dietenak, beste udal batzuek egindako proiektuekin bat eginez.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako udalak premiatzen ditu mozio hau onesten denetik aurrera energia elektriko, gas naturalez eta urez hornitzeko egiten den edozein kontratazio publiko egin dadin organismo arau-emaileak legez kanpoko jardunbideengatik zehatu ez dituen enpresekin; horretarako, murrizketa hori dagozkion kontratazio-pleguetan jasoko da.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako udalak premiatzen ditu bien bitartean egiten diren hornidura elektrikorako baldintza-pleguetan exigi dezaten hornidura hori egin dadila % 100 energia berriztagarriarekin, Jatorri Bermeen mekanismoaren bidez.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Osasunaren Lurralde arteko Batzordean onets dezan Lyme gaixotasuna nahitaez aitortzeko gaixotasuna dela.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Osasunaren Lurralde arteko Batzordean onets dezan Lyme gaixotasuna nahitaez aitortzeko gaixotasuna dela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Lyme gaixotasun kronikoa diagnostikatzen oso zaila den gaitz bat da, eragiten dituen sintomen aniztasuna dela-eta, eta neke kronikoarekin, fibromialgiarekin, ELArekin edota autismoarekin ere nahas daiteke. Horregatik ezagutzen da "imitatzaile handia" izenarekin.

Osasun publikoak gaixotasuna onartzen du jasota dagoenean pazienteak akain baten edo beste artropodoren baten ziztada izan duela, baina bestela ez, eta hori kalbario bat da kaltetutako pertsonentzat, iragan urrian Parlamentuan izandako lan-bilkuran kontatu ziguten moduan.

Pertsona horiek osasungintza pribatura jo behar izaten dute urteak pasa ondoren gaitz neurologikoekin, ikusmen arazoekin, azaleko arazoekin edota buruko minekin, besteak beste, eta han aurkitzen dute Lyme gaixotasunean positibo ematen dutela, gizarte segurantzak onartzen ez badu ere. Ondorioz, hori jasan ahal dutenek Santanderrera, Madrilera edota Bruselara ere joan behar izaten dute, tratamendua modu pribatuan jasotzera.

Horretaz gain, benetako gurutz-bidea egin behar izaten dute osasungintza publikoan; izan ere, gaixotasun horrek eragiten dituen askotariko gaitzen ondorioz, barne-medikuntzako mediku eta espezialista desberdinek artatu behar izaten dituzte, baina elkarren arteko loturarik gabeko gaitzak balira bezala tratatzen dituzte, ez baitira hartzen gaixotasun beraren agerpen gisa.

Estatu Batuetan onartuta dago Lyme gaixotasuna eta urtean 350.000 kasu detektatzen dira. Europako Parlamentuak ere 2018an onartu zuen eta, animalietatik pertsonetara transmititzen diren gaixotasunetatik garrantzitsuena dela azpimarratzeaz gain, oso azkar zabaltzen ari dela ohartarazi zuen.

Erabaki proposamena:

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako hau dio:

1. Espainiako Gobernua premiatzen du Osasunaren Lurralde arteko Batzordean onets dezan Lyme gaixotasuna nahitaez aitortzeko gaixotasuna dela.

2. Nafarroako Gobernua eta zehazki Osasun Departamentua premiatzen du diziplina anitzeko erreferentzia-unitate bat sor dezan gaixotasun hori ikertzeko.

3. Nafarroako Gobernua eta zehazki Osasun Departamentua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak har ditzan Lyme gaixotasuna modu fidagarrian diagnostikatu eta tratatzeko, eta, halaber, Lyme gaixotasunerako eta harekin batera agertzen diren infekzioetarako erreferentzia-unitate bat sor dezan.

4. Nafarroako Gobernua eta zehazki Osasun Departamentua premiatzen du berariazko prestakuntza-ikastaroak antola ditzan osasun langileentzat, Lyme gaixotasunean esperientzia frogatua duten pertsonak eman beharko dituztenak.

5. Nafarroako Gobernua eta zehazki Osasun Departamentua premiatzen du gaixoen erregistro bat sor dezan Nafarroarako, eta horretarako osasungintza pribatuko analisiak onar ditzan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-sistema sinergiko eta koordinatu bat ezar dezan Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Lurralde Antolamenduko, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren artean, garapen-proiektu integralak bultzatzeko, ondare historiko-kulturala mantentzeko laguntza lurralde-garapeneko beste proiektu batzuekin bateratuz.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-sistema sinergiko eta koordinatu bat ezar dezan Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Lurralde Antolamenduko, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren artean, garapen-proiektu integralak bultzatzeko, ondare historiko-kulturala mantentzeko laguntza lurralde-garapeneko beste proiektu batzuekin bateratuz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Foru Komunitatearen ondare historiko-arkeologikoa berreskuratzea kultur politika ororen helburu garrantzitsua da. Balioan jartzea eta mapan kokatzea.

Kulturaren Plan Estrategikoak honakoa jasotzen du bere ekintzen artean: "Toki bakoitzeko kultura, haren berezitasunak eta idiosinkrasia (bakarkakoa eta taldekoa) ezagutzera ematea laguntzean datza: bere ondare edo eta sortzen aintzatestea; eta toki bakoitzaren berezitasunei moldatutako hedapen-estrategiak laguntzea,

beste sail edo erakunderekin elkarlanean (turismoa, industria, ingurumena, etab.). Honetarako, premiak eta estrategiak hautemateko eta lurraldearen aniztasuna kontuan hartuz, merindadeak bisitatzeko lurralde mailako bilera-plana osatuko du Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak".

Bestalde, eskualde bakoitzeko ondare historiko-arkeologikoa herri bakoitzeko, eskualde bakoitzeko garapen ekonomiko eta sozialaren eragile bihurtzeko daiteke.

Nafarroak ondare aberatsa dauka lurralde osoan banaturik. Benetako harribitxiak gordetzen ditu, eta horietako asko despulazio-arriskua daukaten herrietan kokatuta daude. Ondare hori balioan jartzea eta lurralde-garapenerako proiektu estrategikoekin lotzea baliagarria izan liteke aztarnategiak, museoak eta abar berreskuratze eta mantentzeko lanak indartzeko.

Bestalde, turismorako eragile bihurtzeko, inguruan bestelako jardueren hazkundera eragiteko, populazioa finkatzeko eta despulazioa saihesteko. Horretaz gain, bestelako eragin garrantzitsuak ere baditu: zalantzarik gabe, toki-nortasuna eta jabetza zentzua sorrarazten laguntzen du eta, horrenbestez, atxikipena sortzen du eta indartzen du pertsonen jaioterriarekin edo bizilekuarekin duten lotura emozionala.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-sistema sinergiko eta koordinatu bat ezar dezan Kultura eta Kirol Departamentuaren eta Lurralde Antolamenduko, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren artean, garapen-proiektu integralak bultzatzeko, ondare historiko-kulturala mantentzeko laguntza lurralde-garapeneko beste proiektu batzuekin bateratuz.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdearen bilera ezohiko eta urgenterako deia eska dezan, mugak ixtearen gaia aztertzeko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdearen bilera ezohiko eta urgenterako deia eska dezan, mugak ixtearen gaia aztertzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan urtarrilaren 14an, Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko muga zeharkatzeko 9 pasabide Frantziako Gobernuaren aginduz, epemugarik gabe eta terrorismoaren aurkako borrokaren aitzakian. Azken urtean muga ixten den bigarren aldia da, eta horrek eragozpen asko eragiten dizkie eskualde horretako herritarrei, bai egunerokari bai mugikortasunari dagokienez. Emandako argudio urriak ikusirik eta itxiera xedatzeko oinarri gisa erabilitako informazio frogagarririk ez dagoenez, talde parlamentario honek honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroeskualdearen bilera ezohiko eta urgenterako deia eska dezan, mugak ixteak eskualde horretako herritarren mugikortasunean duen eragina aztertzeko eta muga horiek lehenbailehen irekitzeko.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitu errefuxiatu palestinarrek bizi duten egoerarekiko eta nabarmentzen baitu UNRWA Agentziak egiten duen lan garrantzitsua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Elkartasuna adierazten du errefuxiatu palestinarrek bizi duten egoerarekiko; izan ere, lurraldean pairatzen ari diren krisi humanitarioak eta COVID-19aren krisia egoera areagotzen ari dira herri horrek bizi duen egoera sozioekonomiko prekarioa.

2. Nabarmentzen du Nazio Batuen Errefuxiatu Palestinarrentzako Agentziak egiten duen lana, eta uste du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak lan hori babesten jarraitzea, Agentziak erre-

fuxiatu palestinarrentzat bideratzen dituen programak mantentze aldera, eta orobat eutsi behar zaiola UNRWAk Nafarroako gizartean egiten duen sensibilizazio lana eta garapenerako hezkuntza lanari.

3. Nafarroako Gobernua eta erakunde publiko eta pribatuak premiatzen ditu UNRWA babesten jarrai dezaten eta aditzera ematen die UNRWari laguntza berezi eta urgente bat emateko beharra dagoela 2021eko aurrekontu-ekitaldian”. (10-21/DEC-00002).

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, Minbiziaren Nazioarteko Eguna ospatzearen kariatara.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak, Minbiziaren Nazioarteko Eguna dela-eta, elkartasuna adierazten die gaixotasun hori duten pertsona guztiei eta pertsona horien beharrezko erantzuten eta pandemiak beren bizitzetan duen eragina arintzen laguntzeko konpromisoa adierazten du.

Hala, Nafarroako Parlamentuak babesten du bidezkoak diren ekintzak abian jartzea pertsona horien zaugarritasun bereziko egoera arintzeko

eta minbizia duten pertsonen eta haien familien eskubideak bermatzeko.

Halaber, Nafarroako Parlamentuak minbiziaren ikerketa babesten du, gaixotasun horren aurka borrokatzeko ezinbesteko tresna baita, eta bere aitortza helarazten die minbizia duten pertsonen laguntzen dieten elkarte era entitate guztiei, haien konpromisoa eta lan etengabeagatik”. (10-21/DEC-00003).

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, CARUEn (Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzia) Nafarroak duen jarduerari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Isabel Olave Ballarena andreak CARUEn (Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzia) Nafarroak duen jarduerari buruzko idazki bat aurkeztu du. Idazki hori ikusita, talde parlamentarioaren bozeramailearekin eta Erregelamenduaren 184.2 artikuluekin bat, hona ERA-BAKIA

1. Aipatu idazkia (10-21/ITP-00012) ahozko galderatzat jotzea (10-21/POR-00058).

2. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, CARUEn (Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzia) Nafarroak duen jarduerari buruzkoa.

3. Osoko Bilkuran izapidatzea.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Galdera, CARUEn (Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzia) Nafarroak jarduteari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, erabakitzeko eskubideari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Iñaki Iriarte López jaunak erabakitzeko eskubideari buruzko idazki bat aurkeztu du. Idazki hori ikusita, talde parlamentarioaren bozeramailearekin eta Erregelamenduen 184.2 artikuluekin bat, hona ERABAKIA

1. Aipatu idazkia (10-21/ITP-00013) ahozko galderatzat jotzea (10-21/POR-00059).

2. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak erabakitzeko eskubideari buruz aurkeztutako galdera.

3. Osoko Bilkuran izapidatzea.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Galdera, erabakitzeko eskubideari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Brexitak Erasmus programan dauzkan ondorioei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Brexitak Erasmus programan dauzkan ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

1. Nolako ondorioak izanen ditu Brexitak Erasmus programan eta nola eraginen die Nafarroako unibertsitate-ikasleei?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Bertizko Parke Naturaleko basoko pistei eta bideei buruzkoa.

JOSÉ LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko galdera, Bertizko Parke Naturaleko basoko pistei eta bideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

Joan den urteko urriaz geroztik itxita daude Bertizko Parke Naturaleko basoko pistak eta bideak.

Adierazten denaren arabera, hori gertatzen da urrian izandako haize-kolpe bortitzen ondorioz eroritako zuhaitzengatik.

Hiru hilabete iragan ondoren zergatik daude oraindik sarbideak itxita eta zuhaitzak kentzeko eginkizuna bete gabe?

Zer lan enkargatu da, eta noiz, egoera konpon-tze aldera?

Noizko aurreikusten da Bertizko Parke Naturaleko basoko pistak eta bideak berriz irekitzea?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Donejakue Bidea dela-eta 2020ko ekitaldian Nafarroan eginiko jarduketei eta inbertsioei buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Donejakue Bidea dela-eta 2020ko ekitaldian Nafarroan eginiko jarduketei eta inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Donejakue Bidea dela-eta 2020ko ekitaldian Nafarroan eginiko jarduketak eta inbertsioak.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, 2020ko ekitaldian Donejakue Bidea dela eta, Orreagatik Iruñera doan tartean, eginiko jarduketa eta inbertsioei buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, 2020ko ekitaldian Donejakue Bidea dela eta, Orreagatik Iruñera doan tartean, eginiko jarduketa eta inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui, jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Donejakue Bidea dela-eta 2020ko ekitaldian Orreagatik Iruñera doan tartean eginiko jarduketak eta inbertsioak.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, Donejakue bidea dela eta, Pirinioen garapena bultzatzeko 2021eko ekitaldirako aurreikusi diren jarduketei eta inbertsioei buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Donejakue bidea dela eta, Pirinioen garapena bultzatzeko 2021eko ekitaldirako aurreikusi diren jarduketei eta inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Donejakue bidea dela eta, Pirinioen garapena bultzatzeko 2021eko ekitaldirako aurreikusi diren jarduketak eta inbertsioak.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, 2020ko ekitaldian Donejakue Bidea dela eta, Estellerrian eginiko jarduketei eta inbertsioei buruzkoa eta 2021erako Estellerria garatzeko aurreikuisitakoei buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, 2020ko ekitaldian Donejakue Bidea dela eta, Estellerrian eginiko jarduketei eta inbertsioei buruzkoa eta 2021erako Estellerria garatzeko aurreikuisitakoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Donejakue Bidea dela-eta 2020ko ekitaldian Estellerrian eginiko jarduketak eta inbertsioak.

Donejakue bidea dela eta, Estellerriaren garapena bultzatzeko 2021eko ekitaldirako aurreikusi diren jarduketak eta inbertsioak

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, Pirinioetako udalerrietan zuntz optikoa jartzeari buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Pirinioetako udalerrietan zuntz optikoa jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Zertan den Pirinioetako udalerrietan zuntz optikoa jartzea, adierazita zerbitzua ezarrita duten herriak eta zeinetan ez den oraindik ezarri, sarea ezartzeko aurreikusten den epea ere adierazita.

Zenbat erabiltzaile dauden gaur egun lotuta Pirinioetan ezarritako zuntz optikora, herrien arabera.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, Estellerriko udalerrietan zuntz optikoa jartzeari buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Estellerriko udalerrietan zuntz optikoa jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Zertan den Estellerriko udalerrietan zuntz optikoa jartzea, adierazita zerbitzua ezarrita duten herriak eta zeinetan ez den oraindik ezarri, sarea ezartzeko aurreikusten den epea ere adierazita.

Zenbat erabiltzaile dauden gaur egun lotuta Estellerrian ezarritako zuntz optikora, herrien arabera.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, Erronkarin eta Zaraitzun eginiko inbertsioei buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Erronkarin eta Zaraitzun eginiko inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuako departamentu guztietan egindako inbertsioak, osoki nahiz partzialki, 2006tik 2015era arte. Erronkari eta Zaraitzu ibarretan.

Nafarroako Gobernuako departamentu guztietan egindako inbertsioak, osoki nahiz partzialki, 2015etik gaur bitarte. Erronkari eta Zaraitzu ibarretan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, 2021eko Donejakue Urtearen zabalkunderako jarduketei buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, 2021eko Donejakue Urtearen zabalkunderako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2021eko Donejakue Urtearen zabalkunderako aurreikusitako jarduketak.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, “Justizia hobetzea eta herritarrarengana hurbiltzea” proiektuaren exekuzioari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, “Justizia hobetzea eta herritarrarengana hurbiltzea” proiektuaren exekuzioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregela-

menduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak “Justizia hobetzea eta herritarrarengana hurbiltzea” proiektua aurkeztu du Next Generation EU funtsetarako eta aurrekontuaren egutegian 92.000 euro jasotzen ziren, guztira, 2020an exekutatzeko.

1.- Zer zati exekutatu da 2020an proiektuan ekitaldi horretarako proiektuan azpikontratazio gisa jasotzen diren 80.000 euroetatik eta “bestelako kostuetarako” 12.000 euroetatik?

2.- Zein partidaren kontura exekutatu dira edo exekutatu nahi ziren?

3.- Zertan datza “bestelako kostuak” kontzeptuaren exekuzioa?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, “Justiziaren arloko lankidetzeta eta koordinazioa hobetzea” proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, “Justiziaren arloko lankidetzeta eta koordinazioa hobetzea” proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

10-20/PES-00329 galderari emandako erantzunean aitortzen duen bezala, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak “Justiziaren arloko lankidetzeta eta koordinazioa hobetzea” proiektua exekutatzeko 100.000 euroko aurreikuspena du aurtengo aurrekontuetan.

2021erako Nafarroako aurrekontuetako zein partidatan kokatzen dira ekitaldi honetan proiektu hori gauzatzeko ezarri diren 100.000 euroak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, “Giza baliabideen kudeaketa hobetzea Justiziaren arloko langileen arloan” proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, “Giza baliabideen kudeaketa hobetzea Justiziaren arloko langileen arloan” proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

10-20/PES-00333 galderari emandako erantzunean aitortzen duen bezala, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak “Justiziaren arloko lankidetzeta eta koordinazioa hobetzea” proiektua exekutatzeko 95.000 euroko aurreikuspena du aurrekontuetan urte honetarako.

1.- 2021erako Nafarroako aurrekontuetako zein partidatan kokatzen dira ekitaldi honetan

proiektu hori gauzatzeko ezarri diren 95.000 euroak?

2.- Aipatu proiektuaren egutegian 10.000 euro jasotzen ziren, guztira, 2020an exekutatzeko. Aurreikuspen horretatik zer zati exekutatu da 2020an? 2.- Zein partidaren kontura exekutatu da edo exekutatu nahi zen?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Zaraitzun, Irabiako Urtegiko ibilbide zirkularra ixteari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Zaraitzun, Irabiako Urtegiko ibilbide zirkularra ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintzeko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Zaraitzun, Irabiako Urtegiko ibilbide zirkularra itxita dago 2020 urtarrilaz geroztik, SL53C bideko pasabide bat erori egin baitzen. Orain kaltetuta dagoen egitura horrek 20 bat metroko luzera du eta 1940ko hamarkadakoa da. Urtegiaren isatsean dago, Accionaren baso etxearen ondoan. Orduan esan zen ibarreko teknikariak eta enpresakoak kaltetutako eremua ikustera joanen zirela eta, kalteak ebaluatu ondoren, hartu beharreko balizko neurriak aztertuko zituztela, gertatutakoari "lehenbailehen" erantzuteko.

Aezkoako eta Zaraitzuko herritarrek eta ostalaritzako eta turismoko enpresaburuek beren kezka helarazi digute; izan ere, eskualde horretako turismorako lekune garrantzitsua da, hortik 10.000 pertsona pasatzen baitira urtero urtegiko ibilbide zirkularra egiteko.

Urtebete baino gehiago iragan ondoren, zergatik jarraitzen du itxita?

Nafarroako Gobernuak arduratu al da arazoa konpontzen laguntzeaz?

Hala bada, noiz eta nola?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskararen Bulegoko presidentearen arteko euskararen sustapenerako lankidetzahitzarmenari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskararen Bulegoko presidentearen arteko euskararen sustapenerako lankidetzahitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Bulegoko presidentek euskara sustatzeko lankidetzahitzarmena sinatu zuten 2017ko uztailan.

Bost eremu lantzeko asmoa zegoen: hezkuntza, helduen euskalduntzea, euskararen erabilpenaren sustapena, euskarari buruzko gogoeta eta sustapena, ikerketa eta hizkuntzaren korpusa.

1. Nor izan da Nafarroako Gobernuaren aldetik hitzarmen hau garatzeko arduraduna?

2. Zenbat bilera izan dira? Zein datatan?

3. Zein baliabide esleitu dio Nafarroako Gobernuak hitzarmena betetzeari?

4. Zein ekintza zehatz egin da arlo horietako bakoitzean?

5. Neurtu al da zein izan den ekintza horietako bakoitzaren eragina?

6. Hitzarmen horren balantzerik egingen da?

7. Lau urteko epea amaituta, beste hitzarmenik sinatzeko asmorik dauka Gobernuak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Refenaren instalazioak erabiltzeagatik ordaindu ez izanari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Refenaren instalazioak erabiltzeagatik ordaindu ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eldun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Pasa den apirilaz geroztik, Nafarroako Gobernuak ez dio ordaindu Refenaren jabeari instalazio horiek erabiltzeagatik. Zergatik?

Zer esan nahi du Nafarroako Gobernuak gai hori "konplexua" dela dioenean?

Jabearekin hitzartuta dago, edota desadostasuna dago alokairuaren prezioaren inguruan?

Zenbat da ordaindu beharrekoa?

Noiz ordainduko da?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Filmotekaren jarduerari buruzkoa.*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Filmotekaren jarduerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Filmotekaren jarduerari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

- Zein da Kultura Departamentuaren jarrera Nafarroako Filmotekaren jarduera deszentralizateari dagokionez?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, “Filomena” denboraleak Nafarroan izan dituen ondorioei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, “Filomena” denboraleak Nafarroan izan dituen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

“Filomena” denboralearen utzitako ondorioak direla-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Lehen. Nafarroako Gobernuak jasota duenaren arabera, denboraleak Nafarroak eragindako kalteen zerrenda.

Bigarrena. Zehazki, Nafarroako erlezainen sektorean utzitako ondorioen balorazioa.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, sektore publikoak finantza-erakundeei komisioak ordaintzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, sektore publikoak finantza-erakundeei komisioak ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Sektore publikoak finantza-erakundeei komisioak ordaintzeari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

Lehen: Nafarroako Gobernuak azken bost urteotan finantza-erakundeei ordaindutako zenbateko osoa, urtez urte, kudeaketa-, zerbitzu- eta kontu korronteak mantentzeagatiko komisioak direla-eta.

Bigarrena: Zenbateko hori departamentuen arabera xehakatzea eskatzen da, adierazita lehen aipaturiko kontzeptuengatik zenbat diru jaso duen banku-entitate bakoitzak azken bost urteotan, urtez urte.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, memoria historikoa dela-eta, Ibero elizako ataritik plaka bat kentzeari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkezturiko galdera, memoria historikoa dela-eta, Ibero elizako ataritik plaka bat kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Pasa den irailean, plaka bat kendu zen Iberoko elizako ataritik memoria historikoa dela-eta. Non dago gordeta plaka hori?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, etxeetan artatutako mendeko pertsonak jasotzen dituzten laguntzei buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, etxeetan artatutako mendeko pertsonak jasotzen dituzten laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Pentsan ikusi ahal izan dugunez, 2020an % 26 hazi dira beren etxeetan artatutako mendeko pertsonak. Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dugu:

Zer irizpide aplikatzen dira beren etxean zaindu ditzaten mendeko pertsonak jasotzen dituzten laguntza berariazkoak finkatzeko?

Zein da mendeko pertsona batek xede horretarako jaso dezakeen gehienezko kopurua eta zein gutxienezkoa?

Zenbat diru banatu zuen guztira Nafarroako Gobernuak 2020an etxean artaturiko mendeko pertsonen artean?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, Punto Futuro Arrisku Kapitaleko Funtseko partaidetzari eta likidazioari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Punto Futuro Arrisku Kapitaleko Funtseko partaidetzari eta likidazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

2015eko uztailaren 9an, Clave Mayor S.A. SGEIC sozietateak, araubide komuneko Punto Futuro arriskuko kapital-funtsa kudeatzen duenak, funts horren desegitea jakinarazi zion Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

Sodena sozietate publikoaren webgunean (<https://www.sodena.com/index.php/es/empresas-participadas/participadas-actuales.html>) Punto Futuro FCR agertzen da Sodenaren partaidetza duten sozietateen artean, eta ondokoa adierazten da: "Punto Futuroren xedea da aldi baterako parte hartzea nekazaritzako elikagaien sektoreko proiektuetan sektore hori ulerturik zentzu zabalean; hala, horien artean aurki daitezke bai zuzenean kontsumitzeko produktuak ekoizten dituzten enpresak, bai enpresa horientzako zerbitzu- edo

kontsumo-hornitzaileak (ontziak, softwarea, gehigarriak etab.)".

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkeztu dira, idatziz erantzun dakien:

– Nafarroako Gobernuak parte hartu al zuen 2004an, orduko Navarra de Financiación y Control, SA (NAFINCO) enpresa publikoaren bidez, Punto Futuro FCR sozietatearen eratzean? Zer kapital jarri zuen eratze horretan?

– Harrezkero egin al zion Nafarroako Gobernuak edo bere sozietate publikoetakoren batek beste kapital ekarpenik aipatu arriskuko kapital-funtsari? Noiz eta zenbatekoa?

– Funtsa likidaturik al dago? Hala bada, zergatik agertzen da Sodena enpresa publikoaren webgunean Sodenaren partaidetza duten enpresetako bat dela?

– Punto Futuro FCR existitu den urteetan, irabazien nolako banaketa jaso dute funtsaren kapitallean parte hartzen zuten enpresa publikoek?

– Likidazioaren unean, funtsari eginiko partaidetzatik zenbat diru berreskuratu zuten enpresa publikoek?

– Funtsa existitu zen urteetan, zer inbertsiok egin zuten huts eta zenbateko galerak izan ziren horietako bakoitzean?

– Punto Futuro FCR eratu zenetik eta iraun zuen urteetan, nortzuk izan ziren bazkide ziren pertsona fisiko edo juridikoak, eta zenbateko kapitala jarri zuten eta berreskuratu zuten funtsaren likidazioarekin?

– Zenbat ditu kobratu zuen funtsa kudeatzen zuten sozietateak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

